



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urtarrilaren 10a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2003ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gobernuari eta administrazioari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2003ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko abenduaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen 2003ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legea bazter uztea.

Iruñean, 2002ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gobernuari eta administrazioari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitateko gobernuari eta administrazioari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian, "Nafarroako Gobernua" hitzen atzetik "...edo Foru Diputazioa" gehitzea proposatzen da.

Zioak: Izena LORAFNaren 10. artikuluan eta harekin lotutakoetan xedatutakoari egokitzea.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO **DE NAVARRA** **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe kentzea proposatzen da: "Kontseilari bakoitza departamentu baten burua izanen da, baina departamenturik gabeko kontseilariarik ere egon ahal izanen da".

Zioak: Egokiagoa dirudi.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

"3. Nafarroako Gobernua lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseilariak edo foru diputatuek osatzen dute. Kontseilari bakoitza departamentu baten burua izanen da, salbu eta lehendakariaren edo Kontseiluko idazkariaren karguak titular gisa betetzen dituztenak, beharkizun horretatik salbuetsi ahalko dituelako izendapenaren foru dekretuak. Kontseilariak kargua hartzen duten unean geratuko da eraturik gobernu."

Zioak: Izena LORAFNan (33. artikuluan eta harekin lotutakoetan) ezarritakora egokitzea eta departamenturik gabeko kontseilaria izateko aukera gordetzea soilik lehendakariorde eta Kontseiluko idazkari titularrentzat.

3. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa. 3. artikuluko hasierako lerrokada aldatzea proposatzen da. Hona testu berria: "Gobernu Kontseiluaren funtzionamendua barne erregelamendu baten bidez ezarriko da eta ondoko arauak bete behar ditu:"

Zioak: Gobernu Kontseiluak bere barne jarduna erregelamendu bidez ezartzeko aukera ezartzea, orain arte egin den bezala.

5. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.a) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoaren ordez "lehendakariak eginen du; deialdiarekin batera aztergaien zerrenda eta aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa erantsi beharko dira" honakoa jartzea proposatzen da: "lehendakariak eginen du eta horietan buru arituko da; idazkari lanetan Lehendakaritza Departamentuaren titularra den kontseilaria arituko da".

Zioak: Logikoagoa dirudi.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.a) artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. artikuluan a) letrako testuaren ordez honako hau proposatzen da:

"a) Gobernu Kontseiluaren bileretarako deia lehendakariak eginen du; deialdiarekin batera aztergaien zerrenda eta aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa erantsi beharko dira.

Zioak: Zuzenketa teknikoa.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. d) idatz-zati berria gehitzea proposatzen da, adierazitakoaren ordezko, honako testu honekin: "Bilkuren gai zerrenda lehendakariak ezarriko du".

Zioak: Egokiagoa dirudi.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.e) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari letra bat, e) letra, gehitzeko zuzenketa. Gobernu Kontseiluko bilere buruzko akta bat eginen da; bertan denborari, lekuari eta bertaratutakoei, eztabaidatutakoei eta hartutako erabakiei buruzko inguruabarrak soilik jaso beharko dira.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3.e) artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. artikuluko e) letra aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

"e) Erabakirik hartzen ahalko da aztergaien zerrendan agertzen den gaiei buruz soilik. Hala eta guztiz ere, presakoak direla deklaratu ondotik, Gobernu Kontseiluak hasiera batean gaitzerrendan agertzen ez diren gaiei buruz eztabaidatu eta, kasua bada, erabakirik hartu ahal izanen du."

Zioak: Zuzenketa teknikoa.

11. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI
JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko e) letra aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

3.e) artikulua: "Erabakirik hartzen ahalko da aztergaien zerrendan agertzen den gaiei buruz soilik, salbu eta Nafarroako Gobernuko legezko kideen erabateko gehiengoak aurretik eta modu berezian presakoak deklaratzeko badu gaia".

Zioak: Aipatzen ez bada presakotzat nork eta nola hartu behar duen, ez du zentzurik esateak Gobernu Kontseiluak erabakirik hartzen duela aztergaien zerrendan agertzen diren gaiei buruz soilik.

**4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

12. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Burokrazia handiagoa dakar.

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. 4. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“2. Gobernuko Lehendakartzaren foru dekretu baten bidez, Gobernu Kontseiluko idazkari arituko den kontseilaria, haren ordezkapenen araubidea, haren laguntzaileak zein diren eta karguaren gainontzeko inguruabarrak ezarriko dira.

Zioak: Foru dekretuak emateko ahalmena karguaren titularrarena da. Komeni da, gainera, izendapenen dekretu horretan bestelako inguruabarrak aurreikusteko aukera ematea, ordezkapenez eta laguntzaileez gain.

**5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondoko ordeko erredakzioa proposatzen da:

“Nafarroako Gobernuak edo Foru Diputazioak kargua utziko du honakoetan: Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin ondoren, Parlamentuak konfiantza ukatzen dionean edo zentsura mozioa onartzen duenean, edo lehendakariaren dimisioa edo heriotza dela-eta”.

Zioak: Artikulua LORAFNAREN 28. artikuluan xedatutakoari egokitzea.

**6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.a) artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. artikuluko a) letra aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“a) Foru Komunitatearen politika orokorra ezaritzea, behar diren akordioen bidez, lehendakariak definitutako programa politikoarekin bat, eta administrazioa zuzentzea.”

Zioak: Gobernuaren programa politikoa eta administrazioa zuzentzeko gauzatzeko tresnak definitzea.

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. b) letraren bukaeran ondokoa gehitzea proposatzen da: “... Nafarroako Foru eraentza berrezarri eta hobetze-ari buruzko Lege Organikoko 19. artikuluan ezarritako moduan”.

Zioak: Legegintzako ekimenaren baldintzak zehaztea, Gobernuarena ez eze beste hauek baitaude: herritarren ekimena, udalen ekimena, foru parlamentariena eta Gobernuak baizik ez duena LORAFNAREN 20.2 artikulua aipatzen dituen foru legeen kasuan.

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6. artikuluko c) letrari honako testu hau gehitzea proposatzen da:

“... eta Parlamentuak eztabaida ditzan aurkeztea”.

Zioak: Aurrekontuei buruzko foru legea egiteko tramitazio osoa deskribatu nahi da. Zuzenketa teknikoa.

18. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. c bis) letra gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

“c bis) Nafarroako aurrekontu orokor indardunak betetzeko erabakiak hartzea”.

Zioak: Aurrekontu orokorrei buruzko foru lege proiektua onesteko atribuzioaz gain, aurrekontuak betetzeko behar diren neurriak, aurrekontuak erabili eta gastuak egitekoak, dagokionean hartu ahal izateko atribuzioa ere agertu behar da.

19. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.d) artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. artikuluko d) letran testu berria proposatzen da:

“d) Bereziki Parlamentuko Erregelamenduan ezarritako moduan aurrekontu gastuen gehitzea edo aurrekontu dirusarrerren gutxitzea dakarten zuzenketa edo foru lege proposamenak bideratzea onartzeko adostasuna ematea edo ukatzea.”

Zioak: Zuzenketak bereizi nahi ditu zuzenketa eta proposamen orokorrak batetik eta gastuak gehitzea edo kredituak gutxitzea ekartzen dutenak bestetik. Halaber zehazten da jarduera hori Biltzarreko Erregelamenduan aurreikusi bezala betetzen dela, bi fase berezirik: aintzat hartzekoa eta tramitatzeko onartzekoa.

20. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. artikuluari letra bat, f bis), gehitzea proposatzen da:

“f bis) Nafarroaren eskumeneoak diren gaietan, Estatuaren legeak eta xedapenak betetzeko behar diren erregelamenduak onestea”.

Zioak: Berariaz agerrarazi behar da Nafarroak bete beharreko estatuko araudiaren gaineko erregelamenduak emateko atribuzioa, LORAFNaren 42. artikuluari jarraikiz.

21. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. artikuluari letra bat, f ter), gehitzea proposatzen da:

“f ter) Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 39.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eskumen transferentzien arloan ekimena erabiltzea.

Zioak: LORAFNan aurreikusirik dagoen atribuzio horrek ez du aurreikuspen berariazkorik proposamenean.

22. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa: g) letran “Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren,” kentzea proposatzen da.

Zioak: Soberan dago Nafarroako Kontseiluak berezko legea daukalako.

23. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. artikuluko g) letra, horrelaxe geldituko da: “Dagokionean, Nafarroako Kontseiluak...”

Zioak: Azalpena behar du, alegia Nafarroako Kontseiluaren irizpena behar denean eskatuko dela eta ez Gobernuak eman beharreko erregelamenduzko xedapen mota guztietarako.

24. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. artikuluari letra bat, g bis), gehitzea proposatzen da:

“g bis) Foru Komunitateko administrazioaren goi mailako zuzendaritza eta ikuskaritza, bai eta haren menpeko entitate eta enpresa publikoena ere”.

Zioak: 6.a artikuluan dagoeneko esanik baldin badago ere gobernuaren gain dagoela administrazioa zuzentzea, gobernuaren alderdi hori, admi-

nistrazioa den aldetik, nabarmendu behar da eta zabaldu haren menpeko gainerako entitateetara eta enpresa publikoen sektorera.

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. h) letran, "Foru lege proposamenen" ondotik "zuzenketak edo mozioak" gehitzea proposatzen da.

Zioak: Biltzarreko Erregelamenduaren arabera, tramitatzeko onartzeko adostasuna eman edo ukatzeko aukera hori proposamenez gain zuzenketa eta mozioei ere aplikatu behar zaie.

26. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko i) letra aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

6. artikulua, i) letra. "Lehendakariak Nafarroako Parlamentuari aurkezteko proposatu duen Parlamentua desagiteari edo konfiantza-arazoari buruz eztabaidatzea.

Zioak: Uste dugu Kontseiluak balizko Parlamentua desagiteari buruz eztabaidatu behar duela.

27. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. j) letran, "Konstituziokontraotasuneko errekursoak aurkeztea" esamoldearen ondoren, testua hau gehitzea: "eskumen gatazkak sustatzea".

Zioak: Proposamenak ez du espresuki aipatu ahalmen garrantzitsu hau.

28. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. 6. o bis) letra bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

"o bis) Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 69. artiku-

luan aurreikusitako Lankidetzeta Batzordean ordezkariak izendatzea".

Zioak: Ahalmen garrantzitsu hau espreski aipatzea.

29. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. o) letran, testu berri hau gehitzea proposatzen da:

"...eta, bereziki, Nafarroako Gobernuaren ekimenez Estatuak eskualdatu edo eskuordeturiko gutzitez".

Zioak: Ahalmen hori, legez aurreikusirik dagoena eta baliatu ohi dena, aurreikustea.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

30. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Urte hauetan ez dira beharrezkotzat jo eta are gutxiago modu "formalizatuan".

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernu eta administrazioaren ezaugarriak kontutan hartuta, ez da beharrezkoa organoak ugaritzea.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikuluak arautu nahi dituen zenbait alderdik foru erakundeen osaketa, atribuzio, anto-

laketa eta jardunbidea gainditzen dituzte. Autoantolaketako gaiak dira eta beharrezkoa bada beste arau batzuetan aurreikusi daitezke.

33. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa: "Idazkari teknikoen batzordea" hitzen ordeztuz, "Prestatzeko edo aholku-emateko batzordea" proposatzen da.

Zioak: Burokrazia gehiago saihesteko.

34. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Gobernuak Idazkari Teknikoen Batzordea sortu ahal izanen du..." esaldiaren ordeztuz "Gobernuak batzorde bat sortu ahal izanen du..." jartzea proposatzen da. Zioak: Batzorde horretako kideak ez dira nahitaez idazkari teknikoak izan behar.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

35. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Kalifikatu" hitza "kualifikatu" hitzarekin ordeztzea proposatzen da:

Zioak: Transkripzio akatsa.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Foru erakundearen arautze esparrutik kanpo dago. Autoantolaketako gaia da edo, egozia bada, beste arau batzuetakoa.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

37. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Barne araubideko gaia da eta aurreikutsita dago jadanik Nafarroako Gobernu Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan.

38. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. "eta Gobernu Kontseiluaren bileretara"tik aurrera kentzea proposatzen da.

Zioak: Transkripzio akatsa.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

39. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatzatza aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

"2. Lehendakariak jaun edo andre txit garairen tratamendua izanen du eta bere karguari dagozkion ohoreak emanen zaizkio".

Zioak: Lehendakariaren tratamendurako esku-bideak osatzea gainerako botere publikoetarako ezarririk ohi dagoen moduan.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Esamoldeak aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“...izendatutako lehendakariak kargua hartuko du, kargu hartzeko egintza publiko eta hotsandiko batean, eta bertan...”

Zioak: Hobekuntza teknikoa.

41. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako hau proposatzen da: Gaztelaniazko testuan “En el...” jarri ordez, “Dentro del...” jartzea.

Zioak: Argiagoa dirudi.

42. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. “Bost eguneko epean” espresioaren ordez, “Hamar eguneko epean” proposatzen da.

Zioak: Hamar eguneko epea da egun indarra duena eta errealistena dirudi jabetza hartzea prestatzeko.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

43. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa, 2. idatz-zatia kentzeko.

Zioak: Araututa dago jadanik bateraezintasunei buruzko foru legean.

44. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14.2 a). artikulua aldatzeko zuzenketa. “... izaera publikoko entitateetan” espresioaren ordez, hauxe proposatzen da: “... izaera publiko edo pribatuko entitateetan”.

Zioak: Lehendakari karguak, batzuetan, publikoak ez diren erakunde edo entitateetan parte hartzea dakar.

45. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa, 2.c) letra kentzeko.

Zioak: Nafarroako Gobernuko lehendakaria da Nafarroaren eta nafar guztien interes orokorraren zerbitzuan egon behar dena, objektibotasunez, eta horregatik ez dirudi komenigarria denik kargu hori eta alderdian zuzendaritza edo ordezkarietako bestelako karguetan aritzea bateragarria izatea, proposamenaren 14.2 c) artikulua aurreikusitako bezala. Ez da ona Nafarroako Gobernuko lehendakaria alderdiko ardurek baldintzatzea, nafar guztien interesen alde jarduteko denbora, inpartzialtasuna eta objektibotasuna kentzen baitizkio.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatia kentzea.

Zioak: 14.1 artikuluekin bat.

Ez dirudi beharrezkoa Gobernuko lehendakariaren aipamen berariazkoa egitea gai honetan, kontuan harturik 14.1 artikulua berak orokorrean hartzen duela eta 3. idatz-zati honek horren izaera aldatu eta zentzugabetuko lukeela.

47. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa, 3. idatz-zatiaren amaieran lerrokada bat gehitzeko. Hona testua:

14.3 artikuluko bigarren lerrokada “Jarduera horietan aritzeagatik ordainsariak jasoz gero, ordainsari horien zenbatekoa, osotara, ordaintzailak sartuko du zuzenean Nafarroako Ogasun Publikoan”.

Zioak: Kargua dela-eta bete beharreko eginkizunetan aritzeagatik ordainketak eginez gero, Nafarroako Ogasunean sartu beharko dira.

48. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI
JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikulua aldatzeko zuzenketa, idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

14.4 artikulua. Gobernuko kideek eta administrazioeko goi karguek ez dute, kargua dela-eta, inongo oparirik onartzerik izanen, ez beraientzat, ez eta ezkontideentzat edo bigarren gradurainoko senideentzat”.

Zioak: Opariak onartzeko debekua oso zabaldurik dago gure inguruan eta gure ustez ona da.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****49. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da komenigarria LORAFNaren testua aldatzea.

50. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“Lehendakariaren erantzukizun kriminala eskatzerik balego, Auzitegi Goreneko dagokion salan eskatuko da”.

Zioak: Erredakzioa LORAFNari egokitzea.

16. artikuluari aurkezturiko zuzenketak

**16. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****51. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16.1 d). artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondoko testua kentzea proposatzen da: “Parlamentuko lehendakariari idatziz jakinarazitako dimisioa”.

Zioak: LORAFNAk ez du baldintza hori exijitzen dimisioa eraginkorra izan dadin.

52. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. Gaztelaniazko testuan, honakoa gehitzea proposatzen da: “La dimisión QUE SERÁ comunicada...”

Zioak: Egokiagoa dirudi.

53. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatzatian letra bat, g bis), gehitzea proposatzen da:

g bis) Hiltzea.

Zioak: Esan gabe doa heriotza dela lehendakari izaera galtzeko arrazoietakoa bat.

54. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa, 3. idatzatia kentzeko.

Zioak: LORAFNAn ez dago aurreikusirik ezgaitasuna deklaratzeko prozedura hori. Bestalde, ezgaitasun fisiko edo psikiko iraunkorra auzitegi mediko eskudunek, zeinen jarduketak epaileen aitzinean aztertu daitezkeen, deklaratu ahal dute, beste edozein herritarren kasuan bezala.

55. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatzatian, honakoa gehitzea proposatzen da: “Artikulu honetako 1. idatz-zatiko e) letran aipatzen den ezgaitasuna, aldez aurretik alderaturiko txosten medikoak izanik...”

Zioak: Egokiagoa da, bestela pentsa daiteke Parlamentuak ebaluatzen duela gaitasun fisiko edo psikikoaren arazo bat oinarri medikorik gabe.

56. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

16.4 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. Lehendakariak, kargua utzi ondoren, erregelamendu bidez ezartzen diren segurtasun pertsonalaren babeserako eta diru prestaziorako eskubidea izanen du.

Zioak: Ez dugu beharrezkotzat jotzen “trata-mendu eta ohore” bera manten dezala.

17. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

57. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. 17.1 artikuluan testu hau aldatzea proposatzen da: “harik eta lehendakari berriak kargua hartu arte, lehendakariordea arituko da Gobernuko buru, behin-behinekoz.” Horren ordez, testu berri hau proposatzen da:

“harik eta lehendakari berriak kargua hartu arte, lehendakarietatik dagokion lehendakariordea arituko da Gobernuko buru, behin-behinekoz.”

Zioak: Lehendakariordeei buruzko zuzenkete-kin bat.

58. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Gaztelaniazko testuan, “tenga” hitzaren ordez “tiene” hitza jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Baterago heldu da.

59. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatzatzen d) letra f) letra baino lehenago egon behar da.

Zioak: Dimisio kasuan ere lehendakariordea arituko da gobernuko buru behin-behinekoz lehendakari berriak kargua hartu arte.

60. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Esaldiaren amaieran haxe gehitzea proposatzen da: ““Lehendakaria behin-behinekoz ordeztu denak, ordeztu den bitartean...”

Zioak: Argi gera dadin egoera horretan dela eta ez ondoren.

61. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatzatzen amaieran, “lehendakari berria” dioen tokian “titularra” hitza gehitzea: “lehendakari berri titularra” alegia.

Zioak: Artikuluaren barrenean argi bereiztea jarduneko lehendakaria eta lehendakari titularra.

18. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

62. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau: “lehendakariordeak ordeztuko du”, beste honekin ordeztea proposatzen da:

“dagokion lehendakariordeak, jardunean, ordeztuko du;”

Zioak: Aurreko zuzenkete-kin bat etortzeko.

63. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. “Berriazko izendapenik izan ezean” espresioa eta gero “edo lehendakariordeak ez badaude” gehitzea proposatzen da.

Zioak: Lehendakariaren ordezkapen automatikoa errespetatzea.

64. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa, idatz-zati bat gehitzeko. Hona testua:

18. artikulua, puntu berria: "Lehendakaritzan behin-behineko egoera ez da inola ere lau hilabete baino gehiagokoa izanen."

Zioak: Behin-behineko egoera ez da mugarik gabe luzatu behar.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

65. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da egokia eta, gainera, lanpostu hutsik ez dago.

66. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkartzarako proposamenean aurreikusten den sistema LORAFNaren kontrakoa da. Gobernuaren lehendakariaren legezko ordezkariak ondorio guztiak dauzka eta ez dago salbuespenik aurreikusterik.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

67. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21 d) artikulua aldatzeko zuzenketa. Espresio hau kentzea proposatzen da: "eta lehendakariordea".

Zioak: Lehendakariordeei buruzko beste zuzenketekin bat.

68. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. d bis) letra gehitzea proposatzen da.

d bis) Kontseilarien artean gehienez bi lehendakariorde izendatzea.

Zioak: Komenigarria irizten diogu bi lehendakariorde ere ezartzeko legean aukera emateari, orain arte izan den bezala.

69. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21.d) artikulua aldatzeko zuzenketa. d ter) letra gehitzea proposatzen da:

d ter) Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak xedatutakoaren arabera, Kontseiluaren idazkaria izendatzea

Zioak: Proposizioan aurreikusten ez den eskurantza bat da.

70. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da k) letraren testu berria:

21. k) artikulua: Konfiantza-arazoa planteatzea Nafarroako Parlamentuan, edo Nafarroako Parlamentua desagitea, Gobernu Kontseiluak horri buruz eztabaidatu ondoren.

Zioak: Uste dugu Parlamentua desagitea lehendakariaren eskurantza dela.

71. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa, m) letra kentzeko.

Zioak: Gobernuaren erabakiak kontseilari-idazkariak sinatzen ditu eta haien fede ematen du.

72. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa, n) letra kentzeko.

Zioak: Foru legeak aurreikusten du.

73. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa, q) letra kentzeko.

Zioak: Garrantzi gutxi dauka.

74. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa, q) letra kentzeko.

Zioak: LORAFNaren 62. artikulua araberan, Nafarroako Auzitegi Nagusiko burua Erregeak izendatzen du, eta izaera horri zor zaion argitalpen araubidea izanen du.

**22. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****75. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa: "lehendakariordeari" hitza "lehendakariordeei" hitzarekin ordeztea proposatzen da:

Zioak: Gehenez bi lehendakariorde izendatzearekin bat.

76. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa. "21 artikuluko b), f), i), n) eta p) letretan" testuaren ordeztu, hau

proposatzen da: "21 artikuluko b), f), i), j), l), n), o) eta p) letretan".

Zioak: Lehendakariak eginkizunak eskuordetzeko aukerak gehitzea.

**23. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****77. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. 23. artikuluko 1. idatz-zatiaren erredakzio berria proposatzen da. Hona testua:

"1. Lehendakariak erantzukizun politikoa du Parlamentuaren aurrean; hori, halere, ez da oztopoa Gobernuako kideetako bakoitzak bere kudeaketarengatik izan dezakeen zuzeneko erantzukizuna eskatzeko."

Zioak: Hobekuntza teknikoa.

78. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondoko ordeztu erredakzioa proposatzen da:

"2. Lehendakariak lehendakariordeengan edo kontseilariengan eginkizun exekutiboak eskuordetzeko ez du Parlamentuaren aurrean duen erantzukizun politikoa gabetuko.

Zioak: Beste zuzenketek ezarritakoari egokitzea.

**III. TITULUKO ETA I. KAPITULUKO
IZENBURUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETA****79. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

III. tituluko eta I. kapituluko izenburua aldatzeko zuzenketa. "Lehendakariordea" hitza "Lehendakariordeak" hitzarekin ordeztea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

**25. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

80. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

25.1, 2 eta 3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

25. artikulua. Lehendakariordeak.

1. Lehendakariordeei dagokie Gobernuko lehendakariak esleitu edo eskuordetu dizkien eginkizunak betetzea. Halaber, lehendakariordeei dagokie lehendakaria ordezteko foru lege honetan ezarritako kasuetan, dagokien ordenan.

2. Lehendakariordeek, lehendakariak hala erabakitzen bada, departamentu bateko titularra ere izan ahalko dira.

3. Lehendakariordeen estatutu pertsonala, izendapena eta kargu-uztea foru lege honetan kontseilariei buruz esaten denaren arabera izanen dira.

Zioak: Lehendakaritza bat baino gehiago egoteko aukerarekin bat.

**26. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

81. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian esaldi hau kentzea proposatzen da: "Hala eta guztiz ere, departamenturik gabeko kontseilaririk ere egon ahal izanen da".

Zioak: Burokrazia handiagoa.

82. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26. artikulua aldatzeko zuzenketa. 26. artikuluko 1. idatz-zatiaren erredakzio berria proposatzen da. Hona testua:

"1. Kontseilariak gobernuko kideak eta esleitura duten departamentuko titularrak eta ordezkariak izanen dira.

Zioak: Agerian gelditu behar da, titularitateaz gain, departamentuko ordezkariak ere badirela. Aurreko zuzenketa batzuekin bat, ez dago karterarik gabeko kontseilaririk, salbu eta hala erabakitzen bada lehendakariordearentzat edo Kontseiluko kontseilari-idazkariarentzat.

83. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI
JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

26.2 artikulua: Kontseilaria izateko, honako baldintzak bete behar dira: adinduna izatea, sufragio aktibo eta pasiborako eskubideak edukitzea eta epai irmoz kargu edo eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua ez egotea.

Zioak: Gure ustez, sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea aipatzen bada ez da beharrezkoa nazionalitatea ere aipatzea, are gehiago kontuan harturik Europako Batasunetik etor daitezkeen aldaketak.

84. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. 26. artikuluko 3. idatz-zatiari amaieran honako testua hau gehitzea proposatzen da:

"... kargua utzi ondotik ere. Nafarroako aurrekontu orokorretan ezarritako kontseilarien ordainsariak eta ordezkariaren gastuak. Kontseilariak, kargua utzi ondoren, erregelamendu bidez ezartzen diren segurtasun pertsonalaren zein ondasunen babeserako eta diru prestaziorako eskubidea izanen dute.

Zioak: Kontseilarien ordainsarien eta gastuen aurrekontu araubidea eta kargua utzi ondotik izan beharreko tratamendua aurreikusitako behar dira.

**27. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

85. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

27.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. "Departamenturik gabeko lehendakariordearen edo kon-

tseilarien kasuan...” esaldian “...edo kontseilarien...” hitzak kentzea proposatzen da.

Zioak: Egokiagoa dirudi, burokrazia eta gastu gehiago dakarrelako.

86. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. “Departamenturik gabeko lehendakariordearen edo kontseilarien kasuan...” esaldia aldatu eta honela ematea proposatzen da: “Departamenturik atxikirik ez duten lehendakariordeen edo kontseilari idazkariaren kasuan...”

Zioak: 2.3 artikuluari aurkeztutako zuzenketa-gatik, lehendakariordeei edo Kontseiluko kontseilari idazkariari departamenturik ez atxikitzea aurreikusten duelako.

87. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua hau gehitzea proposatzen da: “... eta jaun edo andre txit argiaren tratamendua izanen dute izendatu ondotik.”

Zioak: Egungo egoerarako egokiagoa.

28. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

88. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa, 1. idatzatian letra bat gehitzeko. Hona testua:

28.1 artikulua, f) letra berria. Konfiantza parlamentarioa galtzeagatik, 32. artikuluan xedaturikotari jarraituz.

Zioak: Gure ustez beharrezkoa da Parlamentuak erantzukizuna eskatu ahal izatea zuzenean Gobernu kontseilariari.

89. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa. e bis letra bat gehitzea proposatzen da.

e bis) Hiltzea.

Zioak: Proposamenean ez aurreikusitako bistako arrazoia.

31. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

90. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 31. artikulua, foru prozesala, aldatzea proposatzen da. Hauxe testu berria:

“Gobernuko kideen erantzukizuna eskatzerik balego, Auzitegi Goreneko behar den salan eskatuko da”.

Zioak: Ez da komenigarria LORAFNaren testua aldatzea.

91. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

31. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“Nafarroako Gobernuo-Foru Diputazioko kideen erantzukizun kriminala Auzitegi Goreneko behar den salan eskatuko da”.

Zioak: LORAFNaren 27. artikulua antzeko erredakzioa.

32. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

92. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzeko zuzenketa. “Gobernuak Nafarroako Parlamentuan duen erantzukizun poli-

tiko solidarioa gorabehera” espresioa kentzea proposatzen da.

Zioak: 23.1 artikuluari aurkezturiko zuzenketa-rekin koherenteak izatearren.

93. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzeko zuzenketa. Bi lerrokada gehitzea proposatzen da. Hona testua:

32. artikulua, lerrokada berriak. “Nafarroako Parlamentuak lehendakariordearen erantzukizuna eskatu ahal du; honek eskuordetzearen bidez bere gain hartutako eginkizunena, hain zuzen. Kasu honetan, ez da beharrezkoa izanen hautagai bat proposatzea, baina zentsura mozioak aurrera egiteko Biltzarraren erabateko gehiengo beharko da. Kasu horretan, lehendakariari dimisioa aurkeztu beharko dio, eta horrek ordezkatu egingen du.

Era berean, kontseilari batek bere eskumeneko esparruan zuzeneko erantzukizuna duela ebatzi ahal da, zentsura mozio bat onartuz aurreko idatz-zatian aurreikusitako baldintza eta ondorioekin.”

Zioak: Gure ustez beharrezkoa da Parlamentuak erantzukizuna eskatu ahal izatea zuzenean Gobernu kontseilariari.

33. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

94. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa. 33. artikuluen hasiera aldatzea proposatzen da. Era berean, testua ere aldatzea proposatzen da. “Honakoak dagozkie kontseilariari” esaldiaren ordez hauxe izanen da testua:

“1. Kontseilariak Gobernu kide diren aldetik dagozkien ahalmenak betetzen dituzte.

2. Nork bere departamentuaren eskumeneko gaien inguruan honakoak dagozkie kontseilariari:

a)...”

Zioak: Kontseilariari Gobernu kide diren aldetik dagozkien eginkizunak, politikoak beraz, eta

administrazioko departamentuetako nagusi hierarkiko gisa dagozkienak bereizi beharra dago.

95. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa. 33 a) artikuluari beste letra bat gehitzea proposatzen da. Hona:

a bis) Departamentua ordezkatzeta.

Zioak: Gure ustez eginkizun hori espresuki aipatu behar da.

96. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. b) artikulua aldatzeko zuzenketa. “Foru dekretu proiektuak” hitzen ondotik “erabaki proiektuak” gehitzea proposatzen da.

Zioak: Gobernuari ere dagokion tresna juridiko eta erabakiak hartzeko hori ere aurreikustea.

97. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa. c bis) letra gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

c bis) Ebazpen administratiboak ematea.

Zioak: Erregelamenduzko ahalmena eta zuzenbidea aplikatzeko ebazpenak emateko ahalmena bereiztea.

98. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa. C ter) letra bat gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

c ter) Gastu eta ordainketetarako baimena ematea legeetan ezarritakoarekin bat.

Zioak: Administrazioako aferak ebaztea, funtsean, zuzendari nagusien lana bada ere, aurrekontua betetzeko eta ordainketak agintzeko zenbait egintza kontseilarien esku daude Nafarroako Gobernuak baimenduta, hala nola, diru kopuru

zehatzak gainditzten dituzten dirulaguntzen kontratuak.

99. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. f) artikulua aldatzeko zuzenketa. "Bere kabinetea eta departamentuko dagozkion langileak izendatu eta kargutik kentzea" dioen horretan, hauxe proposatzen da: "Bere kabineteko eta departamentuko dagozkion langileak izendatu eta kargutik kentzea."

Zioak: Hobekuntza teknikoa, jarduketek langileengan dutelako eragina eta ez kabinetean.

100. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33 g). Artikulua aldatzeko zuzenketa. "Buru aritzea" hitzen aurrean "goi mailako" hitzak gehitzea proposatzen da.

Zioak: Kontseilariak bere departamentuko langileen goi mailako buru aritu behar du, begi bistakoa delako langileen kudeaketa arrunta hierarkia-
ren eta burutzen ordena naturalaren barrenean egin behar dela.

101. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33 g). artikulua aldatzeko zuzenketa. 33 g) bis letra gehitzea proposatzen da:

"g bis) Gobernuari proposatzea departamentuaren egitura eta antolaketari buruzko foru dekretu proiektuak".

Zioak: Proposamenean aurreikusi ez den eskuduntza garrantzitsu bat da.

102. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

34. artikulua aldatzeko zuzenketa, 2. idatz-zatia kentzeko.

Zioak: Egokiagoa dirudi, burokrazia handiagoa dakarrelako.

34. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

103. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

34. artikulua aldatzeko zuzenketa, 2. idatz-zatia kentzeko.

Zioak: Kontseilari-idazkariaren eginkizunak eta Gobernuarekiko harremanetarako azpiegitura dagoen departamentuarenak ez dira agian bat etorriko.

38. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

104. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

38.2 a) artikulua aldatzeko zuzenketa. "Erregelamendu horien xedea departamentuko zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua arautzea denean..." esaldian "Erregelamendu" hitzaren aurretik "Erabaki edo" hitzak gehitzea proposatzen da.

Zioak: Departamentuen zerbitzuen jardunbidean eragina izan dezaketen erabakiak eta erregelamenduak aurreikustea.

39. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

105. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

39.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako esaldi hau kentzea proposatzen da: "Departamentu bat baino gehiago ukitzen dutenak, Gobernu Kontseiluaren idazkaritzaren ardura duen kontseilariak sinatuko ditu..."

Zioak: Ez dago arrazoirik ez eta arau konparaturik ere zenbait departamentutako foru aginduak kontseilari-idazkariak sinatzeko, kasu askotan ez baitu gaiaren eskumenik ere izan. Praktikan ez dago oztoporik zenbait departamentu ukitzen dituen foru agindu bat titular batzuek sinatzeko.

106. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

39.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. 39.2 artikuluan, "Gobernu Kontseiluaren idazkaritzaren ardura duen kontseilariak" dioen tokian "ukitutako departamentu guztietako kontseilariak" jartzea proposatzen da.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

V. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**107. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

V. titulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lerrun handiagoko beste lege batzuetan ezarritakoak errepikatzen ditu.

41. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**108. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

41. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Prozedura eta administrazio legeak ezarria du jada xedapenak argitaratu egin behar direla eraginkorrak izateko, eta teknikoki ez da txukuna legeak ezarritakoa errepikatzea. Arauen indar hartzea ezarria dago kode Zibilean, eta ez da zertan errepikatu behar proposamen honetan.

42. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**109. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

42. artikulua baino lehen errubrika bat gehitzeko zuzenketa.

"IV. kapituluak. Xedapen orokorrak prestatzea".

Zioak: 42.etik 45.era bitarteko kapituluak kapitulu bat osatzeko behar adina mami dute.

43. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**110. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI
JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

43.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

43.3 artikulua. Entzunaldirako epea xedapenen izaerari egokituko zaio eta ez da hogeitun egun baino laburragoa izanen. Justifikatutako arrazoiengatik eta behar bezala arrazoituta erabaki edo ebazpenez, epe hori zazpi egunetara murriztu ahal izanen da.

Zioak: Artikulu honek aipatzen du arau xedapenen proiektuek herritarren entzunaldia izan behar dutela zuzenean, eta horregatik ez du gu ikusten zein alde dagoen tramite horren eta hurrengo artikulua aipatzen duen jendaurreko epearen artean; azken horren kasuan ere epea aldatzeko zuzenketa aurkeztu genuen egokiagoa iruditzen zaigulako bateratzea.

44. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**111. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI
JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

44. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

44. artikulua. "Xedapenaren izaeraz edo Gobernu Kontseiluaren nahiz kontseilari eskudunaren erabakiz hala behar denean, proiektua gutxienez ere hogeitun egunez jarriko da jendaurrean".

Zioak: Gure ustez beharrezkoa da epea luzeagoa izatea, 30/1992 Legearen 86. artikuluaekin bat eta epeak bateratze aldera.

112. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

44. artikulua aldatzeko zuzenketa; "...jarriko da jendaurrean" hitzen ondotik honako hau gehitzea

proposatzen da: "...Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara emanez".

Zioak: Jendaurrean jartzeko bidea edo modu materiala osatzea.

**45. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

113. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

45. artikulua aldatzeko zuzenketa, a) letra kentzeko.

Zioak: Xedapenen gaineko txostenak eman behar dituen zerbitzu juridikoa kasuan kasuko departamentuko idazkaritza teknikoa da, hurrengo letran aurreikusten den bezala.

114. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

45. artikulua aldatzeko zuzenketa. b) letran "Idazkaritza tekniko eskudunaren txostena" hitzen ordez atzetik "Idazkaritza tekniko eskudunaren txosten juridikoa" jartzea.

Zioak: Idazkaritza teknikoak prestatu beharreko txostenaren izaera zein den zehaztea.

**49. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

115. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

49. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatzatian letra bat, b), gehitzea proposatzen da:

"Herritarrekiko harremanetan konfiantza zilegiaren printzipioa osotara errespetatzea".

Zioak: Segurtasun juridikoaren printzipioaren deribazio bat da aipatutakoa.

**50. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

116. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

50. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Mota honetako foru lege batean ez da bidezkoa.

117. ZUZENKETA

**FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

50. artikulua aldatzeko zuzenketa, 2. idatzatian letra bat, c), gehitzeko. Hona:

c) Foru administraziora Nafarroako berezko bi hizkuntzetako edozein erabiliz jo ahal izatea.

Zioak: Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzea administrazio publikoekin harremanetan jartzean.

**52. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

118. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikulua aldatzeko zuzenketa. 52. artikuluen 2. idatz-zatiaren a) letrari esaldi hau gehitzea proposatzen da:

"Kargua uzten dutenean jasoko dituzten diru prestazioak izanen dira kontseilarentzat kasu horietarako ezarritakoak.

Zuzendari nagusiek Jaun edo Andre Txit Argiaren tratamendua izanen dute".

Zioak: Zuzendari nagusien tratamendua autonomia erkidego guztietan eta Estatuko administrazioan ezarritakoarekin homologatzea da xedea, administrazioak elkartzean edo haien arteko ekin-tzetan ez baitute tratamendu hori izaten. Era berean, helburua da beste zuzenketa batean kontseilarien kasurako ordainsarien arloan aurreikusitakoarekin batera etortzea.

119. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatiko b) letran, "unitate organikoak" dioen tokian "barne organoak" esatea proposatzen da.

Zioak: 53. artikuluan proposaturiko aldaketarekin bat.

120. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikulua aldatzeko zuzenketa. 52. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letraren amaierako tarterako beste testu bat proposatzen da, hauxe alegia:

"Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako moduan beteko dira".

Zioak: Egokiagoa da langileen inguruko gai hauek, maiz negoziazio kolektiboaren xede direnak, administrazio publikoen zerbitzuko langileei buruzko araudi berariazkoaren xede izatea, orain arte bezala.

121. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Erdarazko testuan, 52. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatiko d) letran, "órganos internos" dioen tokian "unidades orgánicas" esatea proposatzen da.

Zioak: 53. artikuluan proposaturiko aldaketarekin bat.

122. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatiko d) letraren amaierako tarterako beste testu bat proposatzen da, hauxe alegia:

"Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako moduan beteko dira".

Zioak: Langileen inguruko gaiak funtzio publikoari buruzko araudian dute tokia, orain arte bezala; gai horiek, gainera, negoziazio kolektiboaren xedea izaten dira maiz. Bestela, gobernuari buruzko legea aldatu beharra eraginen luke sarritan.

123. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Aldaketa proposatzen da, testu honekin:

"3. Sortzeko arauan behar bezala arrazoituta eraginkortasun arrazoiengatik, departamentuen barruan aurreko idatz-zatian aipaturiko organo edo unitatez bestelako batzuk sortu ahal izanen dira, eginkizun materialen multzo homogeen eta iraunkorra betetzeko. Betiere, sortzeko arauak ezarri beharko ditu mendekotasun hierarkikoa eta aurreko idatz-zatian araututako unitate batekiko nahitaezko parekotasuna, burutza, ordainsari eta betetzeko moduarena.

Zioak: Administrazioan eginbehar material hutsetan (posta-lanak, fotokonposizioa, analisi kimikoak, etab.) aritzen diren taldeak daude, eta horiek ez dira administrazio organotzat hartu behar, horien eginkizunak ez izaki administrazio prozeduren barrenean herritarren eskubideekin zerikusia duten gaietan eragiten duten eskumenak.

124. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatian, honakoa gehitzea proposatzen da: "Antzeko arrazoiak direla-eta sortu ahalko dira zuzendaritza nagusiak, zerbitzuez beste barne organo edo unitate organikoen goi burutza zuzenean bere gain hartuko dutenak".

Zioak: Zeharkako edo lurraldeko arlo funtzional baten ardura zuzendari nagusi baten esku utzi ahal izatea bitarteko zerbitzurik sortu gabe.

125. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

52. aldatzeko zuzenketa. 4. idatz-zatian, amaieran, "nombrado" dioen tokian "nombrados" jartzea proposatzen da.

Zioak: Zuzenketa teknikoa.

126. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

52. artikulua aldatzeko zuzenketa, 5. idatz-zatia kentzeko.

Zioak: Ez dirudi egokia ezartzeak.

127. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

52. artikulua aldatzeko zuzenketa, 5. idatz-zatia kentzeko.

Zioak: Administrazioaren neurriak, haren antolaketa sistemak, eta departamentuen zuzendaritza politikoak eta administratiboak ez dute kide anitzeko goi organo horren premiarik.

Bestalde, proposamenaren 51.2 artikulua goi organoen berri ematen duenean adierazitakoaren kontra doa.

53. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

128. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

53. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatian, "zerbitzuen" ondotik "atalen" jartzean proposatzen da.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

129. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

53.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. "... zuzendaritza nagusien, zerbitzuen eta haiei parekaturiko organoen..." dioen tokian, hauxe esatea proposatzen da: "... zuzendaritza nagusien, zerbitzuen eta haiei parekaturiko organo edo unitateen..."

Zioak: Orain arte bezala, gobernuaren esku uztea egitura, atalen mailaraino, finkatzeko ahal-

mena, eta maila horrekin parekaturiko unitateak izateko aukera aurreikustea.

130. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

53. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatian "Atalak" kentzea proposatzen da.

Zioak: Egokiagoa dirudi, aurreko zuzenketaekin bat.

131. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

53. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatiaren hasiera aldatzea proposatzen da. Hauxe da testu berria:

3. Negoziatuak eta haiei parekaturiko organo edo unitateak...

Zioak: Atalen mailako egituraren onespina Gobernu departamentuen esku ez egotea. Bulegoen pareko unitateak aurreikustea.

132. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

53. artikulua aldatzeko zuzenketa. 4. idatz-zatian, "Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren" hitzen ordean honako hau proposatzen da:

"...ekonomia eta ogasun gaitan eskumenak dituen departamentuaren..."

Zioak: Ez da bidezkoa departamentu zehatzak aipatzea, proposamenean aurreikusirik baitago lehendakariak erregelamenduzko ahalmena duela departamentuak eta haien eskumenak eta izenak ezarri eta aldatzeko.

54. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

133. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

54. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatia gehitzea proposatzen da. Hauxe da testua:

“Xedapen batek eskumena Foru Komunitateko administrazioari edo haren departamenturen bati esleitzen dionean, organoa zehaztu gabe, ulertuko da instrukzioa eta ebazpena gaiaren arabera eskuduna den zuzendaritza nagusiari dagokiola.”

Zioak: 51. artikulua osatzen du eskumenak esleitzeko araubidean aurreikusirik ez dauden kasuetan.

55. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

134. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

55. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzeko.

135. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 55.1 artikulua 54.2 artikulua izanen da.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

57. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

136. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

57. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Parlamentuko Erregelamenduan arautu behar da.

137. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

57. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legezketasun eta eraginkortasunaren kontrolak beste arau batzuetan daude ezarriak, Kontuen Ganbarari edo Ogasun Publikoari buruzkoetan, adibidez. Zenbait planen gaineko kontrol

parlamentarioa Biltzarreko Erregelamenduan eta sektorearen legerian ageri da.

III. KAPITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

138. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

VI. tituluko IV. kapituluaren izena aldatzeko zuzenketa. Hauxe da izen berria:

“III. kapitulua. Kide anitzeko organoak”

Zioak: Zenbakia gaizki jarria du.

IV. KAPITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

139. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. kapitulua osorik kentzeko zuzenketa (58.etik 64. artikulura bitarte).

Zioak: Gai hori erabat arauturik dago eta ez dago ekarpen interesgarririk.

60. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

140. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

60. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori guztientzako administrazio prozedurari buruzko oinarritzko legerian aurreikusirik dago.

61. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

141. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

61. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori administrazio prozedura erkideari buruzko oinarritzko legerian aurreikusirik dago.

142. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

61. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian letra bat gehitzea, testu honekin: "legeak betetzen direla bermatzea".

61,1. artikulua, beste letra bat: "Legeak betetzen direla bermatzea".

Zioak: Proposamenaren 61.1 artikulua kide anitzeko organo baten eginkizunen artean aipatzen ditu 30/1992 Legearen 23.1 artikulua aipatzen dituen guztiak hau izan ezik, eta beharrezkoa iruditzen zaigu.

62. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

143. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

62. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori administrazio prozedura erkideari buruzko oinarritzko legerian aurreikusirik dago.

144. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

62. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da 1. idatz-zatiaren a) letraren testu berria:

62.1 a) artikulua: "Arauetan ezarritako gutxieneko denboraz, 48 ordukoa, gutxienez, deialdia jasotzea; hartan, bileraren gai-zerrenda bilduko da. Gai zerrendako aztergaiei buruzko informazioa ere epe berean izanen dute eskuragarri".

Zioak: Artikulu honen arabera, organoaren arauak beraiek ezarriko dute zenbat denboraz jaso beharko duten organoko kideek bilera baterako deialdia. Gure ustez, legeak ezarri beharko luke gutxieneko denbora, organoaren antolaketa eta jardunbiderako arauen muga izan dadin. Hala egiten du 30/1992 Legearen 24. artikulua, eta, oinarritzko legeria ez bada ere, egokia iruditzen zaigu finkatzen duen gutxieneko epea.

145. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

62. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatiaren c) letrari beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da, tetsu honekin:

62.1 artikulua, c) letra, bigarren lerrokada: "Administrazio publikoen zerbitzuko agintari edo langile diren aldetik kide anitzeko organoetako kide direnek ez dute abstenitzerik izanen bozketetan".

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da 30/1992 Legearen 24. artikulua eduki osoa agerraraztea, betebeharrak ulertzean zalantzarik ez izateko.

63. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

146. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

63. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori administrazio prozedura erkideari buruzko oinarritzko legerian aurreikusirik dago.

64. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

147. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

64. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gai hori administrazio prozedura erkideari buruzko oinarritzko legerian aurreikusirik dago.

67. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

148. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

67. artikulua aldatzeko zuzenketa, 1. idatz-zatiko b) eta c) letra kentzeko.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

149. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

67.3 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

72. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**150. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

72. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zati-rako beste testu hau proposatzen dugu:

“2. Langileen arloko lan-auzibidera jo aurretiko erreklamazioak funtzio eta enplegu publikoaren gaitan eskumena duen kontseilariak ebatzi beharko ditu”.

Zioak: Eginkizun hori sakabanatzeak irizpide bat baino gehiago izatea eraginen luke eta, horren ondorioz, plantillak nahi gabe handitzea.

73. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**151. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

73. artikulua aldatzeko zuzenketa. “zerbitzu juridikoek” hitzen ordez “idazkaritza teknikoak” jartzea proposatzen da:

Zioak: Txosten juridikoak departamentuko zein zerbitzuek egin behar dituen zehaztea.

74. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**152. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

74. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu alternatibo hau proposatzen da 1. idatz-zatirako:

“1. Auzibidean akzioez baliatzeko, Gobernuak edo kasuan kasuko kontseilariak eman beharko dute baimena, eta aparteko izaeraz, presako kasuetan eta behin-behinekoz, Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikoaren arduradunak.

Zioak: Aholkularitza Juridikoaren arduradunak akzioez baliatzeko baimena emateko aukera, aparteko izaeraz eta presako kasuetan bada ere, behin-behinekoz eta ondoren berrestearen menpean eman behar da. Bestalde, “zentrala” hitza kendu behar da, ez baitaude aholkularitza zentrala batetik eta periferikoak bestetik.

153. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

74. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatian proposatzen da “aholkularitza juridiko zentralerako arduradunak” hitzen ordez “Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikoaren arduradunak” jartzea.

Zioak: Izen egokiena dela dirudi.

154. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

74. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatian proposatzen da “aholkularitza juridiko zentralerako” hitzen ordez “Nafarroako Gobernu Aholkularitza Juridikoaren” jartzea.

Zioak: Gobernu Aholkularitza bakarra da eta ez dago dezentralizaturiko besterik.

75. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**155. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

75. artikulua aldatzeko zuzenketa. c) letra kentzea proposatzen da. c) letran “zuzendari nagusiek” kentzea proposatzen da.

Zioak: Gure ustez, jatorrizko eskumenarekin ebazteko ahalmena zuzendaritza nagusien mailaraino ailegatzen da eta, Foru Komunitateko administrazioaren tamaina dela-eta, ez da zehazteko deskontzentrazio handiagorik.

156. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

75. artikulua aldatzeko zuzenketa. d) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: 75. artikuluko c) letraren inguruko zuzenketarekin bat.

76, 77 Y 78. ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**157. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

76, 77 eta 78.1 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Adierazpen orokorrak dira, ez dute ekarpenik eta oinarritzko arauetan daude sarturik.

79. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**158. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

79. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1 eta 2. idatz-zatietan, "sozietate publikoek" esaten denean "sozietate publiko instrumentalek" esatea proposatzen da.

Zioak: Ondareari buruzko foru legean aurreikusitako araubidea eta kontzeptuazioa aplikatzea, Nafarroako enpresa publikoen sektorean badirelako sozietate ez-instrumentalen mota batzuk, eta horiei ez litzaieke ezarri beharko proposamenean aurreikusiriko araubidea.

80. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**159. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua aldatzeko zuzenketa. "eta sozietate publikoak" hitzak kentzea proposatzen da.

Zioak: Araudi konparatu guztiek eta bereziki proposamen honen gidari den LOFAGEK gober-

nuaren esku uzten du sozietate publikoak sortu edo sozietateen tituluak erosteko erabakia.

160. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian, "foru lege" hitzen ordez "foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera" jartzea proposatzen da.

Zioak: Lehen xedatutakoarekin bat etortzea.

161. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian "foru lege" hitzen ordez, "foru dekretuz" jartzea proposatzen da.

Zioak: Gure ustez komeni da erakunde publikoak sortzeko egungo araubidea atxikitzea.

162. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatian "xedapenek" dioen tokian "arau" esatea proposatzen da.

Zioak: 1. idatz-zatian lege mailako araua eskatzen da eta 2. idatz-zatian, berriz, xedapena; beraz, kontraesana desagertzea da proposamenaren xedea.

163. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

80. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatian, amaierako "Ekonomia eta Ogasun Departamentuak" hitzen ordez "ekonomia eta ogasun gaitako eskumena duen departamentuak" jartzea proposatzen da.

Zioak: Proposamenak erregelamendurako ahalmena ematen dio lehendakariari departamentuen kopuruaz, eskumenez eta izenez erabakitzeke, beraz ez da bidezkoa foru legearen bidez ezarritako departamenturik egoteko.

81. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

164. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

81. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. idatz-zatian, "...haiek sortzeko foru legeaz..." dioen tokian, hauxe esatea proposatzen dugu: "...haiek sortzeko foru dekretuaz..."

Zioak: Erakunde publikoak sortzeko egungo sistema atxikitzea.

83. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

165. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

83 eta 86. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Foru Legea" esan beharrea "Foru dekretua" esatea proposatzen da.

Zioak: 81, 82 eta 83. artikulua moldatzea, Nafarroako Gobernuak erakunde autonomoak eta zeharkako partaidetzako sozietate publikoak foru dekretuaz sor daitezkeela eta zuzenbide pribatuko enteak eta partaidetza zuzeneko sozietate publikoak, berriz, foru lege bidez sortzen direla dioen filosofiara egokitzea.

166. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

83. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1 eta 2. idatz-zatietan ageri den "Haiek sortzeko foru legearekin bat" esan beharrea, "Haiek sortzeko foru dekretuarekin bat" esatea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

86. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

167. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

86. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Erakunde autonomoa sortzeko foru legean" hitzen ordeza

"Erakunde autonomoa sortzeko foru dekretuan" jartzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat eta arrazoi beragatik.

87. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

168. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

87. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatiaren amaieran, "haiek sortzeko foru legean" hitzen ordeza, "haiek sortzeko foru dekretuan" jartzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

88. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

169. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

88. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1 eta 2. idatz-zatietan "sortzeko foru legeak" eta "sortzeko foru legearekin", hurrenez hurren, dioen tokian, "sortzeko foru dekretuak" eta "sortzeko foru dekretuarekin" jartzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

89. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

170. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

89. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatian, "sortzeko foru legeak" hitzen ordeza, "sortzeko foru dekretuak" jartzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

**91. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

171. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

91. artikulua aldatzeko zuzenketa. 91. artikuluko izenburuan eta testuan “sozietate publikoak” esaten denean “sozietate publiko instrumentalak” esatea proposatzen da.

Zioak: Foru lege honen aplikazioa sozietate mota horretara mugatzea, Nafarroan enpresa publikoen sektorearen aniztasuna kontuan harturik.

**92. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

172. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

92. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatian, “Sozietate publiko baten sorrera foru lege bidez baimendu beharko da” esaldiaren ordezkari proposatzen da: “Sozietate publiko baten sorrera Nafarroako Gobernuak erabakiko du”

Zioak: 80.1 artikuluarik aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

173. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

92. artikulua aldatzeko zuzenketa. 92. artikuluko 2. idatz-zatiaren hasierako “sozietate publikoak” beharrean “sozietate publiko instrumentalak” jartzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

**93. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

174. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

93. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1 eta 2. idatz-zatietan, “sozietate publikoak” esaten denean “sozietate publiko instrumentalak” esatea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

175. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Lehen eta bigarren xedapen gehigarriek kapitulu berri bat osatu beharko lukete, VIII. tituluaren “Bestelako entitateak” izeneko V. kapitulua, alegia.

Zioak: Egokiagoa dirudi.

176. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen dituen kontrol sistemak ez dira zabaldu behar ente pribatuetara, fundazioetara edo bestelako erakunde edo enteetara, lege proposamenean bertan aurreikusitako Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpekoek gainera.

177. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bosgarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: 52. artikuluarik 2. idatz-zatikoko c) letraren inguruko zuzenketarekin bat.

178. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI
JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hauke da:

Xedapen gehigarri berria. “Lege honen VI. titulu III. kapituluaren xedapenak ez zaizkio aplikatuko Gobernu Kontseiluari”.

Zioak: Gure ustez, Gobernu Kontseiluak bere jardunbide arauak ditu foru lege proposamenean.

XEDAPEN IRAGANKORRARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**179. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 52. artikulua 2.idatz-zatiko c) eta d) letren inguruko zuzenketekin bat.

AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**180. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetan bigarrena aldatzeko zuzenketa. Ondoko ordezkotestua proposatzen da:

“Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 20.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, haren 49.1.a) artikuluari dagokionez, foru lege honen atariko titulua eta I, II eta III. tituluak aldatu edo indargabetzeko, proiektu osoari buruzko amaierako bozketa batean, gehiengo osoa beharko da”.

Zioak: Maila hori mantendu behar duten gai bakarrak foru erakundeen osaketa, eskurantzza, antolamendu eta araubide juridikoari eta haien kideen hautaketari buruzkoak dira.

LORAFNaren 49.1.e) artikuluekin bat, Foru Diputazioaren, haren administrazioaren eta haren menpeko organoen araubide juridikoak ez du hori bete beharko, ez eta oinarrizko legeriaren arabera aplikatu daitezkeen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen inguruko alderdiak ere.

ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**181. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. 5. lerrokadaren azken tartea kentzea proposatzen da,

“Halaber, administrazio-kudeaketaren profesionalizatzea...” hitzetatik hasita.

Zioak: 52.2 artikuluko c) letraren inguruko zuzenketarekin bat.

182. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Laugarren lerrokadan azken zatia kentzea, “Aurreko arauetan, ebazteko ahalmenaren baliatzea...” hitzetatik hasita amaieraraino.

Zioak: Lerrokada horrek egiten duen deskontzentrazio diseinua, kasuistikoegia izateaz gain, ez dator bat talde honek proposamenaren artikuluei aurkezturiko zuzenketekin.

183. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Zioen azalpena artikuluen behin betiko testura egokitu beharko da.

Zioak: Kontraesanik ez egoteko.

TESTU OSOARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**184. ZUZENKETA****FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA**

Testu osoa aldatzeko zuzenketa. Lege proposamenaren hizkera aldatu beharko da, maskulinoa baizik ez baita erabili, eta generoei tokia egiten zaie, neutroa edo maskulinoa eta femeninoa.

Zioak: Proposamenean maskulinoa erabili da testu osoan. Argi dagoenez aipatzen diren karguak bai gizonezkoek bai emakumezkoek eskura ditzaketela, gure ustez zuzendu beharra dago.